



berriak

OSAKIDETZA

2016/07/21

GIDARIEI DISKRIMINAZIOA

Osakidetzak osasun-garraioetako gidari zerrendak (zerbitzu orokorretako gidari eta emergentzietako ibilgailuekin batera) ireki ditu eta C1 eta D1 gida-baimenak exijitzen ditu, osasun ibilgailuekin lanik egin behar ez duten lanpostuetarako ere. ELAk titulu horiek izan ez arren, interesa duten pertsona guztiei zerrendetan izena ematera eta mobilizatza dei egiten die astakeria hau geldiarazteko.

Gidarien kategoria ezberdinek irailak 12ra arte izango dute kontratazio zerrenda ezberdinetan izena emateko.

Osasun garraioeko gidarien kasuan, Osakidetzak C1 eta D1 baimenak izatea exijitzen jarraitzen du, gaixorik eraman beharrik ez daukaten ibilgailuetako gidarientzat ere, bereziki PACen kasuetarako.

ELAk Osakidetzari bi lanpostu funtzional sortzea eskatu zion kategoria honetan, gidatu beharreko ibilgailuen arabera, osasun-ibilgailurik gidatu behar ez duten pertsonen lanean jarraitu ahal izateko.

Osakidetzak, berri ere, uko egin dio gure eskaerari

eta, ondorioz, orain arte lana aurrera ateratzeaz arduratu diren pertsonak diskriminatuko ditu.

ELAk zerrenda horietan izena emateko interesa izan dezaketen pertsona guztiei izena ematera dei egiten die, eskatutako titulazioa izan ez arren, ondoren, izan daitezkeen legeko aukerak aztertzeke.

Era berean, langileei bere haserrea adierazteko deia luzatzen diegu eta Zentraletara kexak bidaltza animatu nahi ditugu.

Azkenik, sindikatuarekin harremanetan jartzera deitzen ditugu mobilizazioak antolatzeke eta, horien bitartez, astakeria honi buelta emateko.

LANERAKO ESKUBIDEAREN ALDE!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA